

KANALAK

Gure produktua bezeroengana helarazteko oso beharrezkoak dira kanalak. Atal honetan erabiliko ditugun kanal ezbedinen zehaztapena egingo dugu.

- **BANAKETA KANALAK:** Bi banaketa kanal ezberdin erabiliko ditugu gure enpresan. Kanal propioa eta zuzena izango dugu, gure web orria eta aplikazio bat izango direnak. Bestalde, etorkizunean denda fisiko bat sortu ahalko dugu, baina orokorrean internetetik eskainiko dugu gure zerbitzua.
- **KOMUNIKAZIO KANALAK:** Gure komunikazio kanalen barnean atal ezberdinak izango ditugu. Alde batetik, sare sozial ezberdinetan iragarki laburrak sortuko ditugu. Gainera, hilabetero zozketak egingo ditugu sare sozial batean (sare aleatorio bat) eta gure zerbitzuaren deskontuak lortuko dituzte berezok. Bestalde, iragarki batzuk sortuko ditugu gure web orrialdean eta telebistan. Hasiera batean, durangoko telebistan edo irratian publizitatea sortuko dugu ere bai, horrela gure enpresa asko zabalduko dugu.
- **SALMENTA KANALAK:** kanal hauei dagokienez, gure enpresa online bakarrik aurki daiteke. Gure aplikazioaren bidez eskuratu ditzakete zerbitzu guztiak eta hauen kontratazioa. Gure online dendara heltzeko, mugikorretan APPSTORE edo PLAYSTORE erabiliz deskartu ahal izango dute aplikazioa edo bestela gure sare sozialetan sartuz eta bertan agertzen den estekan klik eginez.

Kanal printzipala interneta izango da, web orri bat. Baina beste modutara helduko gara gure bezeroengana. Adibidez, sare sozialetatik edo iragarkietatik. Gainera, bideratu ahalko genuke denda fisiko bat.

Hurrengoak dira gure enpresaren sare sozialak:

- **Instagram: @SEMUofficial**
- **TikTok: @SEMU**
- **Facebook: @_SEMU_**
- **Twitter: @SEMUenpresa**

Zeharkako kanalak askoz efektiboagoak izan ahal dira, gure zerbitzua internet bidez salduko delako gehienetan. Salmenta kanalak errentagarrienak izango dira, gure zerbitzua internetetik ezagutuko eta salduko delako gehienbat.

Adibidez, sare sozialetan agertuko den iragarki labur bat sortu ahal dugu. Horrela, sare sozialak hainbeste erabiltzen direnez, oso ikusgarria izango da iragarkia.

Zeharkako kanalak erabiliko ditugu webgune eta aplikazio moduan gure produktua saltzeko.

